


**BEGIRADA KRONOLOGIKOA**  
KARTELAK. 1965-2015

1965. ANDREU URIARTE



1966



1965

25 editoreren lanak 18 standetan aurkeztu ziren.

Aurrekontua 46.587 pezetakoa izan zen.

Katalogo interesgarria argitaratu zen, parte hartzaileek argitaratutako lanak bilduz.

Azokaz gain, bestelako ekitaldi kulturalak ere antolatu ziren: dantza-erakustaldiak, zinema-proiektzioak, erakusketa bibliografikoa eta abar.

Azokak ustekabeko arrakasta lortu zuen.

1966

Mañariak Ebaristo Bustintza "Kirikiño" idazlea (bertako semea) omendu zuen. Ospakizun horri loturik, Euskaltzaindiak batzarra egin zuen Mañariko Udaletxean.

Bizkaiko Bertsolari-txapelketa jokatu zen Andra Mariko elizpean. Lopategi, Mugartegi, Arregi eta Muniategi aritu ziren lehian.

1967

Urte honetan ez zen Azokarik egin, Andra Mariko elizpea eta teilatua konpontzen ari zirelako.

1968

Euskaltzaindia Astolan elkartu zen. Urte honetan "Urre Ezteiak" ospatu zituen. Jose Luis Lizundiaren esanetan, Akademia eratzeke asmoa Durangon sortu zen 1886an, "Euskerazko Jaialdietan" hain zuten ere.

1968



1969



1969

Juan Antonio Aromak *Anaitasuna*<sup>1</sup> aldizkarian hitz hauek idatzi zituen: "Azoka honeek ugaritu beharra dago. (...) eta eskritoreek gai errikoi ta sakonak erabilten [saiatu], erriak irakurteko gosea eta gose hori asetzeko modua euki daian, eta holan erri jakintsu bat izan daiten".

1970

Prentsak ez zion arreta handirik eskaini Azokari. 980 liburu ipini zituzten salgai.

1971

Jende asko (60.000 inguru) hulbildu zen Andra Mariko elizpera liburuak eta diskoak ikustera.

1 Anaitasuna. 1969, azaroak 15

1970



1971



1972. UNESCOAREN IKURRA



1973. GEREDIAGA



**1972**

Unescok Liburuaren Nazioarteko Urtea izendatu zuen urte hau. Azokaren kartelak, zigiluak eta abarrek efemeride horren oihartzuna jaso zuten.

43 argitaletzek eta 11 disketek parte hartu zuten.

Azokarekin batera, kultur-ekitaldi ugari antolatu zituzten.

Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratutako liburu onenak saritu zituzten.

**1973**

Berrikuntza: ikastetxeetarako eta ikastoletarako liburu pedagogikoari stand berezia eskaini zitzaion.

Sarrera-hitzaldia egiten hasi ziren. Urte hartan Nikolas Alzola "Bitaño"k egin zuen.

Katalogoa azkenengoz argitaratu zuten (1980an berriro hasi ziren argitaratzen).


**1974**

Azoka merkatu-plazara aldatu zen, bortxaz baina bere onerako. Azoka Andra Mariko elizpean errotu samar egon arren, egoitza berria egokiagoa zen.

1974. GEREDIAGA



1975. GEREDIAGA



1975

Eskualdeko eta kanpoko dantzari taldeak ekarri zituzten, eta baita ere musikariak (aipagarrienak: Leon Bilbao, Txilibrin eta Artze anaiak), kantariak (Xeberri, Maite Idirin, Bittor Egurrola, *Ez dok Amairu*, eta abar), eta bertsolariak (Areitio, Amuriza, Azpillaga, Lopategi, Mugartegi, Sardui eta abar).

*Gerediaga Sariak* banatu ziren. Euskarazko libururik onena *Saioka* 2ri eta 3ri eman zioten (Iker taldea), erdarazko libururik onena *Le matin basque* liburuari (Pierre Narbaitz), eta sari berezia eskuizkribuen edizioari *Gutunliburua* lanak eraman zuen (Arabako Foru Aldundiko Kultura batzordea). Gainera, accesitak banatu ziren euskarazko eta erdarazko lanentzat arlo hauetan: literaturan (prosan nahiz bertsoan), ikerketan, saiakeran eta pedagogian.

Foruen galeraren mendeurrena zela-eta, Gerediaga Elkarteak "Gerediaga Sari Berezia" sortu zuen euskal foruen historia lantzen eta ikertzen zuten liburu berriak saritzeko.

1976

Edizio honi buruz, gauza aipagarri gutxi. Hala ere, *La Gaceta del Norte* egunkariak titular bitxiak eskaini zituen: bata, "Gerediagarrek 150.000 pezeta eman zizkieten Euskaltzaindiari" eta, bestea, "Venezuelatik 1.000 dolar bidali dituzte ikerketa-lanak saritzeko".

1977

Gandiagaren omenezko kantaldiak itzal handiko kantari asko bildu zituen: Lertxundi, Valverde, Mendibil eta abar.

Iñaki Beobidek eskutitza igorri zion Gerediagari kezka bat adierazteko: liburu-sariketa antolatzen zuten baina musika-sariketarik ez.

1976. JOSE JAVIER LACALLE "LAKA"



1977. GEREDIAGA



1978

Franco 1975ean hil zen arren, urte honetan ere Gobernu Zibilean baimena eskatu behar izan zen Azoka antolatzeko. Gobernadore Zibilak gutun bidez jakinarazi zuen ezingo zuela etorri Azokara. Arrazoiak: "Defentsa eta Barne Ministro Txit Gorenen bisitaldia Probintziara".

1979

380 liburu eta 36 disko berri argitaratu ziren.

Durangoko *Ibaizabal* herri-aldizkariak argitaratu zuen Azokako katalogoa. 1980tik aurrera Gerediaga Elkartek hartu zuen lan horren ardura.

Ekitaldi aipagarriak: dokumental-proiektzioak (*Navarra. Las cuatro estaciones, besteak beste*) eta "Euskara irakaskuntzan" izeneko mahai-ingurua.

1980

Data-aldaketa. Domusantu eguna lanegun bihurtu zenez, erabaki zen Azoka Sortzez Garbiaren inguruan egitea, abenduaren hasieran alegia.


2.276 liburu (horietatik 380 berriak) eta 144 disko. Inoiz baino stand gehiago (75). Eskaintza ugaritu egin zen, baina ikusleak ez, antza.

Urtero argitaratutako liburu eta diskoei ematen zizkieten sarien inguruan eztabaidak behin eta berriro sortzen zirenez, 1980ko edizioan sariak bertan behera uztea erabaki zuten.

1978. JOSE JAVIER LACALLE "LAKA"



1979. ENRIKE URRUTIA "CAPEAU"




1980. GEREDIAGA



1981. GEREDIAGA

**XVI EUSKAL LIBURU  
ETA DISKA AZOKA**



**PERU ABARCA**

*Lit. de J. Perceps BILBAO. 1981*

**ABENDUAREN 5, 6, 7 eta 8 DURANGON**

Gerediagaren ekintza, Eusko Jaurlaritzako Kultur sailaren babespean.

1982. PABLO CUEVAS "AIZOIALA"



**xvii euskal liburu  
eta  
diska azoka**

1982 abenduaren 4, 5, 7 eta 8 de diciembre

**durangon**  
gerediagaren ekintza

laguntzaileak:  
eusko jaurlaritzako kultur saila  
durangoko udala  
bikailuko foru ahaidundia

1981

Mogelen *Peru Abarca* liburuak 100 urte bete zituen, Azokako ekitaldi asko gai horren ingurukoak izan ziren. Ezkurdiko erakusketa-aretoa, berri, 41 liburu zaharrekin erakusketa bat atondu zen Durangaldeko inprimategien omenez.

Gerediagak batzarra egin zuen 40 argialetxe eta disketxetako arduradunekin. Erabaki garrantzitsuenak: Durangoko Azoka editoreentzako eta disketxeentzako azoka zela.

Gerediaga Elkarteak publizitatea indartzeko ahaleginak egin zituen eta lantalde bat sortu zuen bere kartelak Hego Euskal Herriko herri nagusietara zabaltzeko. Azokak oihartzun handia izan zuen eta 50.000 bisitari inguru hurbildu omen zitzaizkion.

1982

Urte hartako gai nagusia musika izaki, musikari eskainitako hiru mahai-inguru egin ziren.

Abenduaren 3an bi musika-ekitaldi aipagarri izan ziren Andra Mari elizan: lehenengoan, Galdakaoko orfeoia, Mundakako abesbatzak eta Durangoko orfeoia eskaini zuten emanaldia; eta bigarrenean, Joxean Artzek "Gizon haundi bat da mundua, mundu txiki bat gizona" ikuskizuna aurkeztu zuen. Dantzaren alorrean, *Jauzkari* balletaren saioa izan zen ikusgai.

Urte hartan beste erabaki bat ere hartu zen: Azoka iragartzeko kartela Durangaldeko artista bati eskatzea. Proposamenak urte askotan izan du jarraipena, baina gaur egun kartelaren egilea edonongoa izan daiteke.

1983

XVIII. Azokak itxura-aldaketa nozitu zuen: stand zaharren orde, erakusmahai modularrak jarri ziren. Bukatua zen aglomeratu-taulez egindako standen garaia.

Sarrera-hitzaldian eta mahai-inguru batean Gabriel Aresti izan zen hizpide.

Sarako *Syndicat d'initiative*-ko bi ordezkari —Paul Dutournier eta J. M. Sarasketa— Durangoko Azokara etorri ziren ikusteko nola antolatzen zen eta aztertzeko zer aukera zegoen antzeko zerbait egiteko Saran. Urteek erakutsi dute 1984an martxan ipinitako ekimen hura oparoa izan dela, Sarako azoka 31 urtez gauzatzea lortu baitute.

1983. JON IRAZABAL

**XVIII EUSKAL LIBURU  
ETA DISKA AZOKA**

1983 ABENDUAREN 8, 9, 10 eta 11  
**DURANGON**




**GEREDIAGA ELKARTEA**


LAGUNTZAILEAK: EUSKO JAURLARITZAKO KULTUR SAILA

DURANGO - IURRETAZKO UDALA BIZKAIKO FORU ahaidundia

1984. JOSE MARI URIARTE



1985. JAIME VICARIO



1984

Joan Mari Torrealdaik ezkor ageri da *Eginen*: "Euskarazko liburugintza pronostiko erreserbatuan oraindik". Torrealdaik desorekak antzematen ditu: bata, argitalpenak irailetik abendura bitartean kontzentratzea, eta bestea, edukiaren desoreka.

*Barricada* eta *La Polla Records* musika-taldeek 10.000 kopia bakoitza gora saldu zituzten. Baina *Hertzainak* eta *Zarama* taldeek arrakasta are handiagoa lortu zuten. Horiek guztiak osatu zuten hamarkada iskanbilatsu hartako soinu-banda.

*Erein*, *Elkar*, *Haranburu*, *Sendoa*, *Ibaizabal* eta *Etor* argitaletxeek "Euskal Editoreen Elkarte" sortu zuten, lanak euskaraz argitaratzen zituzten argitaletxeen ahaleginak elkartzeko asmoz.

1985

Jende-pilaketari aurre egiteko, antolatzaileek bi gune prestatu zituzten: merkatu-plaza liburuak erakusteko, eta Andra Mariako elizpea musikarako.

Urte hartan Espainiako Gobernuak dekretatu zuen abenduaren 6a Espainiako Konstituzioaren eguna izango zela, jaieguna beraz, eta erabaki horren ondorioz sortu zen Hegoaldean "abenduko zubia", zeinetan egin den geroztik Durangoko Azoka.

Azoka-egunak aitzakiatzat hartuta, "Euskal Idazleen Elkarteak" eta Bizkaiko "AEK"-k batzarrak egin zituzten.

Abenduaren 7an, Joan Mari Torrealdaik hitzaldi bat eman zuen "Euskal Telebista eta euskara" ardatz hartuta.

1986. LOURDES CORCUERA





Euskara hutsezko Azoka. 1986



LOURDES CORCUERA

Euskara hutsezko Azoka. 1987



1987. IMANOL LARRINAGA



## 1986

Diru-arazoak zirela-eta, ekitaldi paraleloak bertan behera geratzeko arriskua. Azkenean, erakundeek zorra euren gain hartu zuten.

Urte oso berezia izan zen, abenduko Azokaz gain euskara hutsezko Azoka ere antolatu baitzen.

Hiru mahai-inguru mamitsu egin ziren: "Gerraondoko Euskal Literaturgintza", "Bertsolaritza 1936-1986", eta "Gaurko kantagintza zertan den".

Iragarki labur bat grabatu zen Azokaren berri irratien bidez emateko.

## 1987

Gerediagako Jose Luis Lete Biritxinaga hil zen. Bere gaitasuna kontuan harturik, galera handia Azokarako.

Gerediaga Elkarteko ordezkari batzuk Frankfurtera joan ziren hango liburu-azoka ezagutzera. Alemaniakoaren eta Durangokoaren arteko desberdintasuna handia izan arren, kezka eta esperientziak partekatzea aberasgarria izan omen zen, antzeko arazoak ere bazeuzkatelako.

Gerediagak hitzarmen bat sinatu zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailarekin, Joseba Arregi sailburu zela. Hitzarmen horren bidez, Jaurlaritzak zuzenean esku hartu nahi zuen Durangoko Azokaren antolaketan.

Azoka-egunetan bi batzar aipagarri egin ziren, bata Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearena, eta bestea Euskal Idazleen Elkartek eta Euskal Editoreen Elkartek elkarren artean egindakoa.

1987an biniloaren eta kasetearen senide berri bat jaio zen, formatu berriari CDA deitu zioten. Urte berean Elkar disketeak euskaraz grabatutako lehenengo bi disko konpaktuak aurkeztu zituen, bata Benito Lertxundirena eta bestea *Oskorrirena*.

## 1988

Bilbon *Galeuskaren* 5. edizioa egiten ari zirela-eta, Durangok toki berezia egin zien Galiziako, Kataluniako eta Euskal Herriko idazleei. Besteak beste, hiru herrialdeetako idazleek idatzitako liburua aurkeztu zuen Erein argitaletxeak.

Urte hartan, Julene Azepeitiaren (1888-1980) jaiotzaren mendeurrena zela-eta, Azokak omenaldia egin zion.

1988. ARANTXA LAUZIRIKA



1989

XXIV. edizioan antzerkia hartu zuten Azokako ardatz. Irekiera-ekitaldian hitzaldia egitea ohikoa zen arren, Koldo Amestoy kontalariak istorio bat kontatuz egin zien ongietorri bisitariei.

Antzezlan ugari, antzerki talde ezagunen eskutik: Kukubiltxo, Taupada, Maskarada, Sebastopoleko titiriteroak, Ekekei eta abar.

Kazetaritzaren inguruko topaketan euskarazko egunkari bat argitaratzeko aukerak aztertu zituzten 40 bat lagunek. Ondoren, "Euskaldun Gazetarien Elkarte" sortu zuten. Zoritxarrez, elkarte hura jaio eta gutxira desagertu zen.

Musikari zegokion arau garrantzitsu bat jarri zen indarrean: Azokan euskaraz grabatutako produkzioak baino ez ziren salduko.

1990

Mahai-ingurua, "Olerkigintza" gaia hizpide hartuta.

Bi olerki errezitaldi aipagarri egin ziren: batak ahots ederrak bildu zituen (Pello Zabaleta, Henriette Aire, Eskarne Aroma eta Jesus Eguzkitza "Eguzki"), eta beste errezitaldia Joxean Artzek eman zuen.

Antton Valverde eta Xabier Letek kantaldia egin zuten Kurutziaga zineman.

Bizkaiko bertsolari txapelketa jokatu zen.

1989. FERNANDO DE VICENTE



1990. "RODRI"



1991. J. AZURMENDI



1992. JON ROMAN



1993. ENDIKA OLLO



1991

Lau mahai-inguru aipagarri: "Euskal prentsa gaur", "Alfabetatzea gaur egun", "Nobela beltza euskal literaturan", eta "Erotika eta euskal literatura".

1992

Sarrera-hitzaldia eta mahai-ingurua "Euskal kulturaren zabalkundea Euskal Herriatik kanpo" gaiari buruz. Antzeko gai baten inguruan beste hitzaldi bat ere izan zen: "Euskal kultura munduan zehar: Parisko Euskal Kultur Bidean Elkartea".

Xabier Amurizak eta Jon Sarasuak bertso eta koplak errezitaldia egin zuten, "Atzerriko bertso eta koplak" izenburupean. *Oskorrik* jaialdia eskaini zuen Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

1993

Omenaldia Bernardo Estornes Lasari.

Prentsak itzulpengintzaren emaitzak azpimarratu zituen. Klasikoak euskaraz argitaratu ziren (Stevenson, Cortazar, Herodoto eta abar), eta sortzaile euskaldunak gaztelaniaz (Sarrionandia, Jimenez eta abar).

1994

Urte hartan olerki emanaldiak ezohiko lekuetan egin ziren: udaletxeko arkupean, *Arkarazo* tabernan eta *Kurutziaga* hotelean.

Bernardo Atxagak "Lezio berri bat ostrukari buruz" eskaini zuen. Dantza ekitaldiak eta bertso-saioak ere izan ziren.

1994. PABLO GARITAONANDIA



1995. JAIME VICARIO



1997. FERNANDO DE VICENTE



1996. ALEX OTXOA DE ASPURU



1995

Azoka hartan zinemagintzaren inguruko gaiek berebiziko garrantzia hartu zuten.

Euskal zinemagintzan aritutako sortzaile ugari omendu ziren: Koldo Larrañaga, Benito Ansola, Pio Caro Baroja, Fernando Larrukert eta Nestor Basterretxea. Aitzindariari ez ezik, erakunde bati ere aitortu zioten bere lana: Euskadiko Filmategiari.

*Zugaza* zineman hainbat film proiektatu ziren, besteak beste J.J. Baquedano durangarraren *Oraingo izen gabe* filma. Bakedanok euskal hitza eman zion zeluloideari. Anbotopeko parajeetan grabatutako film hartan bertako euskaran mintzo ziren aktoreak.

Hitzaldien artekin bat nabarmendu behar da: "Euskara eta zinema".

1996

Liburutegiari buruzko hitzaldiak azpimarratuko ditugu.

Aipamen berezia merezi du Joseba Jakari egin zioten "Gogorapen-ekitaldia". "Liburu arteko gizon bat" izena eman zioten ekitaldiari. Bertsolariak, kantari ospetsuak eta dantzariak bildu ziren Andra Mariko elizpeko omenaldi hartan.

Ekitaldi paraleloetatik bat gogoratuko dugu: eskulangintzako lehen erakusketa.

1997

Urte hartan hainbat mahai-inguru antolatu ziren: "Kulturaren finantziazioa: Mezenazgoa Euskal Herrian", "Abbadie, Euskal jaiak eta bere garaia", "Iparra eta Hegoa. Banatutako lurra?", eta "Literaturaren sorkuntza gaur eta hemen".

Pantxoa eta Peiok kantaldia egin zuten.

San Agustin Kultur Gunean "Espetxean (1937/1942). Bizitza eta heriotza giltzapean" erakusketa burutu zen.

1998

Gerediagak Frai Juan Zumarragakoa gogoratu eta omendu zuen.

"Durangoko Azoka, munduan zehar, Interneten bidez" proiektua aurkeztu zuen Gerediaga elkarteak.

"Bertso&kantu: munduko euskaldunei telegrama" ikuskizuna eskaini zuten Andoni Egañak, Iñaki Muruak eta Josean Goikoetxeak.

1999

Azokako gai nagusia: Nafarroa.

Hitzaldietan euskararen egoera Nafarroan, kultur politika eta komunikabideak aztertu ziren.

2000

Gaia: Euskal Herria eta Alemania.

Bi izen aipagarri: Wilhelm von Humboldt eta Federiko Krutwig.

1999. GARAZABAL




1998. RAQUEL HERNANDEZ



2000. ENRIKE URRUTIA "CAPEAU"



2001. JAKOBA



2001

Urte hartan lau lagun omendu ziren: Juan San Martin, Pedro eta Pablo Pedro Astarloa, eta Bitoriano Gandiaga.

Prentsak bi liburu azpimarratu zituen: Sarrionandiaren *Lagun izoztua*, eta Iñaki Mendigurenek itzulitako *Harry Potter*.

2002

Historia harturik ardatz, Labayru Ikastegiari eman zitzaion Argizaiola Saria.

Hitzaldien artean, bi aipagarri: "Euskal historiaren erronkak" eta "Eleberrri historikoak direla-eta".

2003

Gai nagusia: irratigintza. Horren inguruan hainbat alor jorratu ziren: euskara eta irratia, musika eta irratia, eta abar.

Urte hartan Landakoko egoitza berria estreinatu zen. "Urte askotako amets izan duguna, errealitate bihurtu da", aitortu zuten Gerediagakoe txosten batean.

2002. JOXE AMANTEGI




2003. IBAN GORRITI



2004. ISMAEL IGLESIAS



2005. TXELU ANGOITIA



2006. MIRIAM PEREZ



## 2004

Gai nagusia: *Sortzaileen geografia.*

Argizaiola Saria Jose Luis Alvarez EnparantzaTxillardegiri eman zitzaion.

Mendeurrenak zirela-eta, bi gizon gogoratu zituzten bereziki: Telesforo Monzon eta Jose Antonio Agirre.

Azokak Umeen Txokoa berreskuratu zuen.

## 2005

Gai nagusia: Zentsura.

Hainbat hitzaldi eta mahai-inguru gai horren inguruan Torrealdei, Xabi Paia, Fermin Muguruza eta abarren eskutik. Argizaiola Saria Gotzon Garateri.

Gerediaga Elkartek 40 urte bete zituen.

## 2006

Gai nagusia bidaiak izanik, "Euskal bidaiariak" mahai-ingurua azpimarratu behar da.

Kirmen Uribek egin zuen sarrera hitzaldia.

Urte hartan Esloveniako literatura gonbidatu zuten.

2007

Gai nagusia: Umorea.

Sarrera hitzaldia Andoni Agirregomezkortak eman zuen.

Herrialde gonbidatua: Georgia.

"*Ahotsenea*, sortzaileen gunea" sortu zen.

2008

Gai nagusia: Irudia.

Herrialde gonbidatua: Finlandia.

Bernardo Atxagak eta Quim Monzo-k hitzaldi bat eman zuten, "Hizkuntza txikiak, literatura handiak" izenburupean.

2009

Kataluniako kultura gonbidatu zuten Durangora eta kataluniarrek *casteller*-erakustaldia egin zuten. *Castellers*-ek zeruan gora egin bazuten, Kataluniako gainerako ordezkariak hango kultura lau haizetara zabaldu zuten Landakotik.

Argizaiola Saria ikastoletako lehen andereñoen eskuetara joan zen.

2007. IGOTZ ZIARRETA



2008. ARITZ ZABALA



2009. LUR MERINO





2010. FEDE BOSCH



2011. CRISTOBAL AGUILO



## 2010

Gai nagusia: Erotismoa.

Herrialde gonbidatua: Kurdistan.

Hizkuntzari eta adierazpen askatasunari buruzko bi mahai-inguru.

Argizaiola Saria Imanol Urbieta musikariari.

## 2011

Berrikuntza handiena, hiru gune berriren sorrera: *Irudienea* (Ikus-entzunezkoei eskainitako gunea), *Szenatokia* (arte-eszenikoak) eta *Kabiñ* (teknologia eta eduki libreen gunea).

Kultura gonbidatua: Galizia.

Anton Reixak sarrera-hitzaldi gogoangarria egin zuen, barre gustura egiteko modukoa.

2012. NESTOR BASTERRETXEA

2012

Aiert Goenaga izan zen urte hartako zuzendaria.  
 Kultura gonbidatua: Ijito Herria.  
 Benito Lertxundik jaso zuen Argizaiola Saria.

Kartela Nestor Basterretxeak egin zuen, beirate itxurako irudi batean "euskal sorkuntzaren argi guztiak batuz".

2013


Kultura gonbidatua: Eskozia.  
 Argizaiola Saria William A. Douglass antropologo amerikarrentzat izan zen.

2014


Gonbidatutako herrialdea: Okzitania.  
 Argizaiola Anuntxi Arana antropologoari eman zioten.  
 Gogoeta gunea sortu zen.



2013. ITZIAR OKARIZ



2014. MARTA CÁRDENAS



2015. ZUMETA

## 50. DURANGOKO AZOKA



2015eko ABENDUAREN 4tik 8ra

